

6. Bezeroen harremanak

Gure enpresan bezeroekiko harremanei garrantzi handia ematen diegu. Azkenean beraiek direlako gure zerbitzua erabiltzen dutenak eta berain iritzia oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Bezeroak produktua lehen aldiz erabiltzen dutenak dira.

Bezorei tratu egoki bat eskeintzen diegu beraiek direlako gure proiektuaren zati garrantzitsuenetako bat. Aldez aurretik azpimarratzekoa da, bezorei hasieran inkesta bat egin zitzaiela beraien gustoa zeintzuk diren jakiteko. Segurasko askok galdetzen duzutela eta ze gusto, zein motatako gustoa? erantzuna erraza da, mota guztietako gustoa janariarekin lotura dutenak, baita arroparekin, etxeko tresneriarekin ere eta hori gutxi izango balitz Tolosako garraio publikoen ordutegiak eskuragarri izango dituzte aplikazioan. Tolosako hiri busak adibidez, orain arte ordutegia geltokian bertan zuen, panel batean ipinita eserlekuaren atzean, baina gurekin aldiz, ez zara etxetik atera beharko autobusaren ordutegia ikusteko.

Aplikazioak gai desberdiñak izango ditu eta horietako bat garraioak izango dira, taxien zenbaki partikularra, udaleko zerbitzuak eta aipatutako aurreko guztia.

Horretaz gain, bezeroekin pertsonalki bilduko gara, aplikazioaren bitartez hotza iruditzen zaigula eta horrela beraiekiko harremana estutuko dugu. Beraiek ere konfiantza puntu bat hartzeko, kontuan izanda aplikazioan bertan beraien datu pertsonalak ipini behar dituztela eta ikusteko beste modu seguru bat dela.